

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZALDUONDOKO UDALA

#### Idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Ikusirik Zalduondoko Udaleko idazkari-kontuhartzailea aldi baterako lan ezgaitasunean dagoela.

Ikusirik uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuan, gaikuntza nazionaleko toki administrazio funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoan, xedatutakoaren arabera, lanpostu hori estatu mailako gaikuntza duten toki administrazio funtzionarioentzat gordeta dagoela, idazkaritza-kontuhartzailetza azpieskalakoak diren funtzionarioentzat.

Kontuan hartuz idazkari-kontuhartzailea lanean hasi arte, beharrezkoa dela lanpostu hori bitarteko eran betetzea, udalaren jarduera gelditzea ekiditeko.

Ikusirik uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionaleko toki administrazio funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, 30.etik 34.era arteko artikuluetan xedatutakoa,

Kontuan hartuz apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren, 21.1.h) artikuluan xedatutakoa,

Honen bidez, honako hau

Ebatzi dut

Lehenengoa. 10 egun baliouduneko epea irekitzea, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera, hautagaiek eskaerak aurkezteko; xedea da udal honetako idazkaritza-kontuhartzailetzako plaza behin-behineko izaeraz betetzea, idazkaria aldi baterako lan ezgaitasunagatik bajan dagoen bitartean. Eskaerak dekretu honi erantsita dagoen ereduaren arabera egin behar dira.

Estatu mailako gaikuntza duen toki administrazio funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiek lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da.

Hautagai bat baino gehiago aurkezten badira, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Lurralde Politikako Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan puntu gehien lortu duena proposatuko da izendatua izateko hautagai moduan.

Bigarrena. Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 3. hizkuntza eskakizuna duela esleitura, derrigortasunarekin. Lanaldia ehuneko berrogeikoa izango da.

Hirugarrena. Aukeratutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea Arabako Foru Aldundiari.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren, gaikuntza nazionaleko toki administrazio funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoaren, 30. artikulua eta hurrengoek xedatutako prozedurarekin jarraitzea.

Bosgarrena. Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, egiten duen lehenengo bilkuran.

Zalduondo, 2014ko ekainaren 18a

*Alkatea*

EDUARDO RIBAGUDA

**Eranskina**

“ ..... jaunak/andreak  
(NAN zenbakia: .....; jakinarazpenetarako helbidea:  
..... herria;  
telefono zk.a: .....), ..... azpieskalako es-  
tatu gaikuntzako funtzionarioak, gaur egun ..... toki erakundean  
..... plazan diharduenak,

Azaltzen du:

.....ko ALHAOn (zk.: ..... ) argitaratutako iragarkiaren bidez jakin  
duela Zalduondoko Udaleko idazkari-kontuhartzaitza lanpostua bere titularra gabe dagoela,  
aldi baterako lan ezgaitasunagatik bajan baitago, eta uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekre-  
tuaren, gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak  
betetzeari buruzkoaren, 30. artikulua xedatutakoarekin bat etorritz, lanpostu hori bitarteko eran  
betetzeko aukera dagoela.

Uste duela lanpostu horri dagozkion zereginak zuzen betetzeko beharrezko eskakizunak  
betetzen dituela, indarrean dagoen legeriarekin bat etorritz, eta bidezko diren izapideak bete  
eta gero.

Eskatzen du:

Zalduondoko Udaleko idazkari-kontuhartzaitza lanpostua behin-behineko izendapen bidez  
betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honekin batera, ondoko agiriak aurkezten dira:

- NANaren fotokopia
- Estatu mailako gaikuntza duen funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.
- 3. hizkuntza eskakizuna betetzen duela egiaztatzen duen agiria.

....., 2014ko .....

Sinadura: .....”